

# Metodologia aktiboen erabilerarako tailerra

ECTS kopurua: 1

Kodea: ECTSG1901

## Hartzaileak

Metodologia aktiboen erabileran hasi edo sakondu nahi duten UPV/EHUko irakasleei zuzendutako ikastaroa da. Derrigorrezkoa da saio presentzial guztietara agertzea, teknikak eta dinamikak praktikan jarriko baitira aurrez aurre partaideen artean, eta esperientzia horren bitartez garatuko baita metodologia hauen ezagutza. Gainera, tailerra burutuko den lauhilekoan zehar partaideek irakasgaiaren bat esleituta izan behar dute, emango dituzten klaseetan aplikatu ahal izateko tailerrean ikasitako teknikak.

## Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Metodologia aktiboen artean problemetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutakoa, ikaskuntza kooperatiboa, edo kasuaren metodoak erabiltzen dira besteak beste goi mailako hezkuntzan. Metodologia hauek era askotako trebeziak garatzen dituzte, hala nola, ikasten ikastea, autonomia, taldean lan egitea, problemen ebazpena, analisisa edo erabakiak hartzea. Hauek guztiek ikaskuntza eraginkorragoa eta esanguratsua izan dadin laguntzen dute.

Ikastaro honetan metodologia bakoitza landuko da, teknika eta estrategia desberdinak ikusiz, eta beraien abantaila eta zailtasunak ere aztertuz.

Partaideek ikasle eta irakasle rola hartuko dituzte, jarduera batzuetan ikasle rolaekin teknika desberdinak probatuz, eta ondoren, irakasle bezala, beraien ikasleentzat jarduerak diseinatuko dituzte, ikasitako teknikak erabiliz. Jarduera horiek gelan aplikatuko dituzte ondoren, lortutako emaitza eta aurkitutako zailtasunak aztertuz, aurretik egindako diseinuari hobekuntzak proposatuz.

Irakasle guztiek tutore bat izango dute gidari jarduera hauen diseinuan eta inplementazioan .

## Ikastaroan lortzeko gaitasunak

1. Ikaskuntzarako jarduera aktiboak diseinatzea, beraien zailtasunak kontutan hartuz.
2. Gelan jarduera aktiboak egoki erabiltzea, lortutako emaitzak aztertuz, hobetzeko asmoz.

## Edukiak

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza  
Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza  
Kasuaren Metodoa  
Ikaskuntza kooperatiboa  
Gela iraulia (*Flipped classroom*)  
Bikoteen arteko heziketa (*Peer instruction*)  
Problemen ebazpena

## Zereginak

Gaitasuna	Jarduera mota	Iraupena <sup>1</sup>
1	- Teknika aktiboen dinamikak probatu	12P
1	- Jarduerak diseinatu	4P+6EP
2	- Diseinatutako jarduerak gelan erabili eta emaitza aztertu	3EP

<sup>1</sup> Ordu presentziala (P) eta ez presentziala (EP)

## Ebaluazioa / Akreditazioa

Bete beharreko baldintzak:

-Saio presentzial guztietara agertzea.

-Egin beharreko jarduerak burutzea, ebaluaketa positiboa lortuz ondorengo irizpideen arabera.

Gaitasuna	Ebaluaketa tresna	Ebaluaketa erizpideak	Ehunekoak
1	Jardueren diseinua	Koherentzia metodologia edo teknikarekin Helburu, zeregin eta ebaluaketaren arteko lerrokatze egokia	70
2	Txostena	Aurkitutako zailtasunen azterketa Hobekuntza proposamenak	30

## Datuak

### Iraupena

16 ordu presentzial eta 9 ez-presentzial

### Datak

Aurrez aurreko saioak: irailaren 18, 25 eta urriaren 3 eta 10

Jardueren diseinua eta gelan esku-hartzea:

### Ordutegia

10.00-14.00

## **Lekua**

Carlos Santamaria Zentroa, Gela 1.

## **Partaide kopurua**

Gehienezkoa: 20

## **Hizkuntza**

Euskeraz

## **Campus**

Gipuzkoa

## **Irakaslea**

Cristina Peña eta Kristina Zuza

## **Izena emateko epea**

2019ko maiatzaren 2tik 10era, biak barne

## **Izena emateko baldintzak**

**Derrigorrezko baldintza:** Tailerra burutuko den lauhilekoan zehar partaideek irakasgaiaren bat esleituta izan behar dute, klaseak ematerakoan aplikatu ahal izateko tailerrean garatutako jarduerak.

Metodologia aktiboetan trebakuntzarik gabeko irakasle atxiki eta agregatuek lehentasuna izango dute, berriek batez ere.

Kontuan hartuko da baita ere eskatzaileak ikastaro hautaketari emandako lehentasuna, izena ematean eskatzaileek jarraitutako hurrenkera.

## **Matrikula baliogabetzea**

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan, 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko. Horrela egiten ez duenak ezin izango du parte hartu hurrengo UIPRE deialdian.